EKAINAREN 24a
SAN JOAN BATAIATZAILEAREN GORAZARREA

Kanta ahal ditzagun ahots ozenez
zure egintza miresgarriak,
askatu gure mihi zikinduak,
O Joan Bataiatzaile Santua.

Goitiko Olipotik etorri aingeruak
zure aitari iragarri zizkion
zure jaiotza eta izen handia,
eta aurresan zure bizitzaren joan-etorriak.

Hark, ordea, duda egin zien goitiko promesei,
eta galdu zuen hizketa joriaren jarioa:
baina berregin zenion zeure jaiotzaz
galdua zuen ahotsaren organoa.

Amaren sabel itxian zeundela
sumatu zenuen erreginaren gelan Erregea:
eta amari ezkutuak agertu zenizkion,
baita, jaiorik, biok izango zenituzten merezimenduak.

Aintza Aitari, eta Semeari,
eta zuri, beti,
bien batura zaren Espirituari,
Jainko bakarrari beti eta beti.